

AURTENGO TXOSTENEN PROGRAMAKUNTZAZ

Donostia, 1980-1-25

J. Luis Lizundia

1979.urteko txostenen programakuntza batetarako apunte batzu eskatu dizkit euskaltzainburuak. Berak oso beharrezkotzat jotzen du hori, azken orduan eta beti banan banan eskaka orainarte —zerbait programaturik ez dagoenetan— bezala ibili ordez.

Txostenen programakuntzarako ardatz batzu ikusten ditut, hala nola:

1.—*Euskal Erria* aldizkariaren mendeurrena, Berako Euskal Bestena eta Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak. Hirurok aurtengo egutegirako iragarriak. Beren inguruan, garaiz programa daitezke zenbait txosten, baita ere txostengileak aukeratzen hasi ere. Gero zehaztuko dugu hobeto.

2.—Euskaltzain urgazle berriei txostenak eskatu. Hori orain lau urte egin zen eta gehienek erantzun zuten. Orain bigarrenez egin genezake. Jadanik euskaltzainburuak idatziko zien, denei lanen bat eskatuz. Euskaltzain osoek bezala obligaziorik ez badute ere, oso komenigarri da. Elkargo lagunaren aurrean bere lanerako gogoia eta Akademiarenganako atxikimendua erakusteko. Gainera Azkuek bere garaian eskatzen zuen eta badugu gure Lafitte haren lekuko. Zehaztuko dugu puntu hau ere.

3.—Arrasateko Biltzarraren jarraipena. Gure ustez larunbatean txostengileekin izan genuen bilerak, eta Biltzar Adierazpenaren ildotik segituz, ekar dezake gramatika lanetarako mesederik. Igaz, Bergaratik arrez gerokoek etenik gabe lan eta erabaki zehatz batzuen fruitua ekarri baitigute, beste hainbeste espero dezakegu, Adierazpenaren puntu hau ongi kunplitzeko bideak asmatzen baditugu, alegia:

“3.—Bide honetan barrera jarraitzeko lan talde batzuen beharra, premia eta nahia erakusten du. Horretarako batzordeak sortuko ditu”.

4.—Toponimia lanak. Argitaratua dugu Udalen Izendegia eta berriz has-tekoak gara Batzordekook lanean, Herri Izendegiko beste zerrendekin, hots, udal maila ez dutenekin: herrixka, kontzeju, elizate, kofradia eta auzo gotorrenak. Bestalde hor ditugu Diputazio batzuk berriztatzen edo egiten hasi diren 1:5.000eko mapak. Benetan lan nekeza eta luzea, dedikazio handikoa

eta lankide berriak eskatzen dituen. Hortaz ere, lanen nondik norakoa agertuz, iturri bibliografia, lekuko eta beste txosten batzuk batzarretara eramatea, oso interesgarria gerta daiteke, besterik ezean nolako lantzurekin esku artean Euskaltzaindia eta Euskaltzaindiakoak dabiltzan, jendeak jakin dezan.

5.—Lanean diharduten beste batzorde batzutara joko nuke baita ere, hala nola Lelukoenera, Herri Jakintzakora, Aditzekora, adibidez. Eta beren idazkariei, hots, Villasante, Satrustegi, Altunari eskatu akulari lana egiteko. Segur nago, txosten interesgarriak burutuko direla, lehen ere agertuak baitira. Iker Saileko batzordea ez bada ere, oso gaurkotasunez betea ikusten dut bertsolari batzordea, hara hortaz zer zien *Deian*, J. M. Torrealdaik oraintsu: “Instituzioen inizatiben artean bi bakarrik aipatuko ditut. *Euskaltzaindiarenak* bi-biak: gramatika finkatzeko *Euskaltzaindiaren* IX Biltzarra Arrasaten, eta Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa”.

Eta Erregen egunean *Eginek*: *Euskaltzaindiari* esker, aurten, berriro, Euskal Herri osoko Txapelketa jokatu da gaur Donostiako Balda frontoian. Ez dira Txapelketan, diren guztiak, baina parte hartu dutenak adoreaz eta kanoreaz gainera, bertsolari onak ez direnik ezin esan. *Euskaltzaindiak* prestatu duela Txapelketa, esan da. Egia. Euskara zaintzea dagokio *Euskaltzaindiari*. Euskara kultur mailara jasotzea. Inor bada *Euskaltzaindia* baita-go herriak egunero egiten duen euskararen alde. Baina, hainbeste desberdintasun delarik, desberdintasun guzti horiez baliatuz, euskararaen batasuna nahi du, egiteko horretan ari da, ekin eta jarrai, aspaldiko urte hauetan. Bertsolaria da herriaren ahotsa. Nola utz zezakeen bazter, *Euskaltzaindiak*, herriaren arimaren bozeramale den bertsolaria”.

Beraz azken txapelketa hauen kronika izango den txosten bat beharrezko dugu, ahal bada Urtarrileko batzarrerako, dossier eran eginga. San Martin, Juan Mari Lekuona, Jose Mari Aranalde eta gehiagok —behar bada— idatzi dutena ere bilduz.

Batzorde idazkariei idatzi, edo denen arteko bilkura bat egitea komenigarri izan daiteke. Bakoitzak batzorde lagunei buruagandik hasita, lehen aipatutako akulari zeregina egin dezaten, hots, txostenak eska eta programatu.

6.—E. Knörrek eta J. San Martinek, Iker eta Jagon saileko bere —Foruko txostenetan— zenbait lan aipatzen zituzten. Berrikuste bat eskatuko nizkieke, gai batzuri buruzko txostenak eskatzeko, beti ere posibilitate eta prioritateen arabera.

* * *

Goazen orain puntu batzu zehaztera:

1.1.—*Euskal erria* Aldizkariaren mendeurrena dugu aurten. 1880.ean sortu zen, prezizkiago, bigarren seilebetekoan. Aldizkari honek, eta beronen garai-ko beste zenbaitzuk, hurrats interesgarri bat suposatu zuten euskal alorrean. Egutegian aipa bezala, Donostiako batzar bat, arratsaldeko bat, espreski

eskaintzea litzateke asmoa. Baina gaurko gaiari lotuz pentsatzen joan behar duguna, txostenak enkargatzea da, horretarako bibliografia edo hemeroteka zaleen artera begiratu behar dugu eta badauzkagu. Garaiz agindu ezker (Arratiako zentzuan, hartzen dut *agindu* hitza), oso txosten baliatsuak burutu daitezke, *Euskal Erria*-ren ingurua hobeki ezagutzeko aproposak, eta gaur egun euskal aldizkariak dauden egoera ikusirik mesedegarri gerta daitezkeena.

1.2.—Berako Euskal Besten mendeurrena ere badugu. *Euskal Erria* aldizkariari esker, badakigu haren berri zehatza. Ospakizun horretarako nolako txosten eta nori eskatu ere pentsatzen joan beharra dugu. Nik neure kontutik, eta honek ez du ideia baten balorea besterik, Caro Baroja euskaltzain ohorezko berria ikusten dut aproposa; erdi beratarra izanik, eta baita, Ondarra ere, honi Bidasoa eskualdeko, Caro Barojak nunbait “el pais del Bidasoa” deitzen dion euskara, toponimia edo beste zerbait aztertzen has dadila erregutuz.

Berako batzarraren inguruan; Uztailaren ondarrean, igaz Foruan egin-dako Barne Jardunaldiaren gisara bigarren saioa egin genezake. Gehienon ustez oso probetxugarriak izan ziren, bai gure arteko konbibentzia aldetik, eta bai gure Elkargoaren barnera azterketa begirada bat emateko. Lantzean herrialde batean egitea komeni zela aipatu zen. Ba, Nafarroan daukagu aurtent aukera. Bortzrietan toki xarmentik bada eta aukera genezake bat. Horrekin literatur edo hizkuntz txostenik aipatzen ez badut ere, barnerako prestatu beharra egongo dela, diot.

1.3.—*Nazioarteko euskalarien Jardunaldiak* ditugu Abuztuaren azkenalderako iragarriak. Horretarako dagoen batzordeak hautatuko ditu txostengileak eta gaiak, noski. Mitxelenak, oker ez banago, Jardunaldi horiek nolabait Unibertsitatearekin lotzea ere nahi zuen. Behar bada ez legoke txostenen batzuk, Jardunaldiko egun batetan, Leioan eman ezinik, ez baitago Gernikatik urrun, eta gainera, unibertsitateko irakasleren batek. Dena dela, hau berarekin eta beste batzordekideekin tratatu beharra dago.

2.—*Euskaltzain urgazle berriei* txostenak eskatzea, banan banan bakoitzaren espezialitatea aztertu behar dugu. Linguistika alorrean Karmele Rotaetxe, Patxi Goenaga eta Jose Antonio Mujika baditugu, hirurak Arrasaten txostendun, eta bereziki gipuzkoar biok, gramatikariak, eremu horretako txostenak eskatzea da bidezkoena. Telletxea Idigoras, Garmendia Arruebarrena eta Apezetxea euskal idazle bati buruzko ikerketak egiten saiatuak, berauen lanak Euskaltzaindiko batzarretara eta bide batez EUSKERARA ekartzeko modua izango dugu.

Junes Casenave pastorgintzan eta Daniel Landart teatro lanetan ez dira lankide txarrak eremu bi horiek gure batzarretara ekartzeko.

Federiko Barrenengoa eta Periko Sancristovalek toponimia lanetan eskaini dezakete beren emaitza. Bata, Aiara eskualde gutxi ezagunaren iker-tzaile zehatza eta bestea, Diputazioaren bidezko Jagon Sailaren bideko langile

izan badaiteke ere, geografi azterketan aritua. Ondarrak ere ezagutzen dituela uste dut toponimia lanak, beste ikerketa mota batzuren artean.

Pedro Pujana, gramatika eta aditz lanetan aritua dugu, batez ere Oleta herrixkan eta ia beronen inguruan: Otxandio, Ubide, Bilerlen, bakarrik gordezten den Arabako euskararen dialektologia ikerketetan txosten interesgarri-rik ekar ditzake. Nafarroa Beherekoan, Jean Batista Etxarren-gandik espero dugun bezala.

Eustasio Etzezarreta bere Euskalerriko Liturgi Idazkaritza leihotik, Elizarekiko ofizialkidetasun esparruko kronika-txostenen eskainiko digulakotan nago, karguaren salbuespenak kontutan izanik, eskatzen badizkiogu. Baditugu lehendik ere frogantzak.

Azkenik, Jose Antonio Arana. Lehendik ere txosten interesgarri-rik, egi-na da. Azkena Azaroan, durangar euskal idazle ezezagun biren xehetasunak emanez, eta aurreraxeago Kanalaetxebarria gernikar idazlearena. Beraz, gehiago ere itxoin dezakegu, Azkue Bibliotekari buruzko langintza edo kroni-ketatik, gainera.

3.—*Arrasateko biltzarraren jarraipena.* Badu hemen Euskaltzaindiak lan eta txosten anitzen iturria, konpromisua ere.

Hau behar den bezala programatzeko ideia hau aurkezten dizuet: Bazko asteen Euskaltzainak Arrasateko txostengileekin eta behar bada beste grama-tikalari-eren batzuk, egun oso batez toki lasai bate bildu eta Adierazpenean aipatzen diren lan taldeak zeintzu izan daitezkeen, nolako lan eremukin, zela-ko lan plan eta abar tratatzeko. Epe laburrerako, Arrasateko txostenak oso-tzeko egin daitezkeen beste zein txosten aztertu eta epe luzerako, euskal gra-matika batetarako, nolako urrats eman daitezkeen ere ikutu beharko lirateke egun horretan.

Seguru asko, biharamonean, euskaltzainak, hautatzen den batzordeño eratzaile batekin, zenbait erabaki hartu beharko lituzteke, hala nola, bezperan erabakitakoa sistematizatu, batzorde batzu izendatu, eta lan *aurreplana* asmatu.

Txostengintza iturri jario honek, ba du bere garrantziarengatik serio-ki hartu beharra.

* * *

Toponimia lanak. Hemen, arestian aipa bezala, ba da ikerketa lanik. Bi azpimarratuko nituzke; bata, gutxienez hamabostero berriz Gasteizen biltzea eskatzen duena, alegia, Herri Izendegiarena. Zenbait eskualde ikusiak dira jadanik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bina eta, Nafarroan, lau. Oraindik ba dugu tarea!

Bestalde 1:5.000 mapagintza aipatu dut. Hau honetatik dator: bi arki-tekto etorri zaizkit langintza bat eskatzera. Bien artean Markina buru duen

eskualdearen hirigintza planaren errebisio osoa egiteko ardura hartu dute Bizkaiko Diputazio Foraletik. Txema Basañezek, Artibai ibarreko herrietako ardura dauka; besteek, Eduardo de Felipek, Lea ibarrekoa. Eta eskabide hau izan da, hain zuzen: 1:5.000ean dauden eskualde horren mapetako zuzenketak egitea. Lan nekeza, Udaletxe bakoitzean azterketak egitea eskatzen duena; Jabego Erregistroan ere bai, Markinako karmeldarren liburutegia begiratzeari, bibliografia, ahanzi gabe. Azkenik, auzoz auzo edo bertako terminologia erabiliz, kofradiaz kofradia ibili, lekukotasunak jasotzeko. Desafio honi, desafio bat baita, ene ustez, hainbat azkarren erantzun beharra daukagu.

Eta kasu honetan ni izan anintz ere arduraduna, beste batzu baletoz, ezingo nuke. Lankide berriak behar ditugu, eta are gehiago, beste Diputazio batzuk, langintza hori erabakitzen baldin badute. Federiko Barrenengoa batekin pentzatzen nago orain eta beste batzu ere izango dira edo bilatu behar ko ditugu. Esate batetako, A. Ondarra bat, Nafarroarako?

Lan hauen finantzabiderako Diputazioei eskatu behar zaie laguntza, baita ere Herri Izendegiaren lanerakoan ere. Bestalde guk EUSKERA eta separatetan argitaratu arren, bakoitzeko Boletin Ofizialean agertzea litzateke interesgarriena, Udaletxe guztietan hartzen baita, bide batez funtzionarien artean horrek ematen dion itzala kontutan izanik.